

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko Udalaren kudeatzea materialerako gomendioa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari, Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa – prozesu bateratuak kudeatzeko

Honen bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 69. artikuluan xedatutakoaren arabera, Amurrioko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari agindu dio Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko bat lanpostu hautatzeko prozedura gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera material, tekniko edo zerbitzu-jarduera guztiak egiteko.

Eskatutako hautaketa prozedura gauzatzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko beste Polizia-kidego batzuekin eta era bateratuan.

DEITUTAKO LANPOSTUEN DESKRIPZIOA

Hautaketa bateratuaren prozedurak, beste batzuen artean, Amurrioko Udalerako, Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente izateko bat lanpostuetarako eskaintza egingo du.

Eskaintzen diren lanpostuak administrazio bereziko taldekoak dira, zerbitzu berezietako azpitaldekoak, udaltzain klasekoak, C sailkapen profesionaleko taldekoak, C-1 azpitaldekoa, lanpostu-mailako osagarria: 14, berariazko osagarria: 22.690,88 eurok.

Plaza horiek Udal honek azken hiru urteetan egindako lan-eskaintza publikoetan sartu dira.

Hizkuntza-eskakizunari dagokionez:

- Lanpostuak 2. hizkuntza-eskakizuna dute, eta derrigortasun-data iraungita dute.

Gidabaimenei dagokienez, baldintza hau bete beharko da:

- B gidabaimena indarrean izatea eskabideak aurkezteko azken egunean.

KUDEAKETA GOMENDIOAREN NORAINOKOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egingo ditu hautaketa prozedura gauzatzeko eta garatzeko izaera material edo teknikoko jarduera guztiak. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak argitaratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Aldizkari Ofizialean hautaketa prozesuak arautzen eta garatzen dituen oinarriak. Deialdiak eskainitako plazen deskribapenez gain, honako gai hauek ere jaso beharko ditu:

1. Amurrioko Udalean, hautaketa prozeduraren garapenean zehar, sortu daitezkeen Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategoriko lanpostu hutsen arabera deitutako lanpostuen kopurua handitzea, legez ezarritako terminoetan.

2. Parte hartzeko betekizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 77. artikuluan ezarritakoak izango dira.

3. Eskabideak egiteko eta aurkezteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak horretarako jarriko duen prozedura elektronikoa erabili beharko da. Eskabideak aurkezteko epea deialdi bateratua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun baliodun baino gehiagokoa eta hogeita hamar egun baliodun baino gutxiagokoa izango da.

4. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du hautaketa prozedura zehazteaz, garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena; baita ere, parte hartzaileen hautaketaz. Epaimahai horri Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 28ko 4/2005 Legean xedatutakoa aplikatuko zaio; eta, honako hauek osatuko dute:

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak izendatutako mahaiburu bat.
- EUDELe proposaturiko hiru bokal. Bokal horiek deialdi bateratuan parte hartzen duten udaletako langileen artekoak izango dira.
- Hiru bokal, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren proposamenez izendatuak.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak izendatutako idazkaria: hitza duena, baina botorik gabekoa.

5. Hautaketa sistema oposizio-lehiaketa ireki bitartez izango da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Hautapen eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Proba teorikoak ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoari lotuko zaizkio, Toki Administrazioen funtzionarioen hautaketa prozedura lotu beharreko oinarrizko arauak eta gutxiengo programak ezartzen dituen Errege Dekretuan ezarritakoari.

7. Merituen lehiaketa-fasean alderdi hauek baloratuko dira:

- a) Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente gisa Udaltzain kidegoetan egindako zerbitzuak.
- b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Europako Esparruko 5., 6. eta 7. mailako titulazioak.
- c) Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B2 eta C1 mailak edo ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren baliokideak.

8. Euskararen jakite-maila agiri bitartez egiazta daiteke edo prozesuak dirauen bitartean egingo diren proben bitartez. Euskara probak egiteko Akademiak IVAPeko lankidetzak izango du. Lehenetsuna izango dute Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin duten lanpostuak betetzerakoan. Horrexegatik izango dira lehen esleituak. Euskara betekizuna ez den lanpostuetarako jarraian agertzen denarekin bat etorritik baloratuko da: uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuko 11. artikuluekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan araututakoarekin bat etorritik.

9. Epaimahaiak oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu beharko ditu.

10. Hautaketa eta prozesuari buruzko argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak iragarki-oholean jarriko dira. Informazio ondorioetarako Erakunde Autonomoaren web orrialdean ere argitaratuko dira eta deialdi bateratuan parte hartzen duten toki- korporazioei ere igorriko zaizkie. Epeen ondorioetarako erabakigarriak izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak iragarki-oholean argitaratzen direneko datak.

11. Eskumena duen Udalak behin baldintzak betetzen direla ziurtatuta, hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira.

12. Ezinbestean eta baztertzeko izaerarekin prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira, bakoitza bere aldetik, eta horiek gainditu ezean, hautagaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta deialdi honi dagokion Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak galduko ditu. Ezin izango dira batera egin, eta iraupena ez da 30 hilabetekoa baino gehiagokoa izango.

13. Prestakuntza-ikastaroa ikastaro akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzaila, eta edukia, ebaluatzeko eta gainditzeko moduak, eta iraupena Ikasketen Planean eta arau

aplikagarrietan zehaztuko dira. Prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu hamargarren puntuari aurreikusitako moduan. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du ikastaroa gainditzen ez dutenak baztertzea.

14. Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute dagozkien kidegoetan. Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, honako hauek ezarriko dituenak: praktikaldiaren iraupena, hura baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikarako destinoak eta horietan hasteko data. Praktikaldian, hautagaiek Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente Kategoriari dagozkion egitekoak betetzean erakusten duten eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu praktikaldiko kalifikazioak. Eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du, halaber, praktikaldia gainditzen ez dutenak baztertzea.

15. Praktikaldia bukatu eta hurrengo bi hilabeteko epean, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, dagozkion administrazio organo eskudunak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa prozedura gainditu duten hautagaiak. Izendapena Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente gisa egingo da.

16. Praktiketako funtzionarioek haien administrazioaren kontura jasoko dituzte lansariak, eta administrazio horrek eman beharko dizkie haren praktiketako funtzionarioei armak, dokumentazioa eta ekipamendua.

17. Praktiketako funtzionarioei barne araudiko erregelamendua eta Akademiako barne araudia aplikatuko zaizkie. Halaber, diziplina-araubidearen arabera irakaskuntza arloko diziplina-hutsegite hutsak ez diren egoeretan Euskal Herriko Polizia kidegoen diziplina-araubidearen arauak aplikatuko dira. Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zigor bat jasotzea arrazoi espezifikoak izango da hautaketa prozeduratik kanpo geratzeko, lehen aipatutako arauekin bat etorritik, eta Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak prozesu horretatik eratorriak galtzeko.

18. Prestakuntza-ikastaroari aplikatu ahal zaizkion ebaluazio-irizpideekin bat etorritik, Ikasketen Planean bildutako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada hautagairen batek prestakuntza-ikastaroa gainditzeko ezintasun materiala duela, dagozkion administrazio organo eskudunak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, prozesutik kanpo utzi dezake, betiere kasuan kasuko praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.

19. Prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian hautaketa prozeduratik baztertutako pertsonak bueltatu beharko dituzte armak, dokumentazioa edo emandako edozein ekipa.

20. Hautaketa prozedura gainditzen duten pertsonak, dagozkion Udaleko Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu Euskal Poliziaren oinarrizko eskalako agente gisa.

GOMENDIOAREN TERMINOAK

Amurrioko Udalak:

a) Eskumenen titulartasuna izaten jarraituko du. Eskumen horiek betetzea kudeaketa materialaren gomendioari buruzko akordio honen bitartez egitea gomendatzen da.

b) Hautaketa prozesuari dagozkion lan-eskaintza publikoa onetsiko eta argitaratuko du. Hori deialdi bateratua argitaratu baino lehen egin beharko du.

c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari bidali beharko dio beharrezko informazioa eta prozesuaren garapen zuzenerako beharrezko materialaren lankidetzara emango dio.

d) Behin hautaketa fasea amaituta deitutako lanpostuetara esleitura dauden pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu eta hautaketa prozesua amaituta karrerako funtzionario izendatuko ditu.

e) Deialditik sortutako gastuen finantzaketan lagunduko du, finantziazio atalean ezarritakoaren arabera.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, agindu zaizkion jarduerak betetzeaz gain, honako hauek izango ditu bere kargura:

a) Ariketen garapen materialerako beharrezko operatiboa kudeatuko du: tokien kontratazioaren kudeaketa; hautaketa probak egiteko tokiak hornitzea; hautaketa prozesurako zain-tzaileak kontratatzeke kudeaketa; oposizio-proben itzulpena eta erreprodukzioa; proba-egunean probak banatzea eta biltzea; halako jendetzak parte hartzen ditueneko hautaketa prozesu bat zuzentasunez gauzatzeko beharrezko diren jarduerak egitea: aparteko beharrianak dituzten pertsonen zainketa-lana eta laguntza, etab.

b) Hautaketa prozesuak eraginkortasunez eta berdintasun, meritu, ahalmen eta publizitate printzipioak zorrotz errespetatuz prozesuak ondo gauzatzeko baliabideak bideratuko ditu, aldi berean, izaera pertsonaleko datuei buruzko indarrean dagoen araudia errespetatuz.

FINANTZIAZIOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ordainduko ditu kudeaketa gomendiotik sortutako gastuak.

Amurrioko Udalak ordainduko die oposizio fasea gaindituta destinoa aukeratu duten praktiketako agente izendatutako pertsoneri, udalak daukan aplikazio-araudiarekin bat etorritik, prestakuntzak eta praktikak iraun bitartean. Aldi berean, armak, dokumentazioa eta beharrezko ekipoak eman beharko dizkie.

Oro har, horren berri ematea da, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Amurrio, 2022ko irailaren 8a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA